

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONE BIKENDI HARANEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Baso aprobetxamenduaren lizitazioa

Done Bikendi Haraneko Kontzejuaren 2025eko otsailaren 27ko batzarraren erabakiarekin bat etorritik, prozedura irekiaren deialdi publikoa egiten da, La Dehesa 640 zenbakiko onura publikoko mendian (OPM) baso aprobetxamendua egiteko, hain zuzen, Done Bikendi Haraneko Serenautsi, Casacona eta Chaparral dermioletan.

##### 1. Erakunde adjudikatzailea

a) Erakundea: Done Bikendi Haraneko Administrazio Batzarra.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

— Bulegoa: Haraneko Udalaren bulegoetan, 9:00etatik 14:00etara.

— Telefonoa: 615 735396.

— Helbide elektronikoa: [jasanvicentedebarana@gmail.com](mailto:jasanvicentedebarana@gmail.com).

— Azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte; epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egunera arte luzatuko da.

##### 2. Kontratuaren xedea

a) Kontratu mota: ondarezkoa.

b) Deskribapena: «arisku eta menturako» aprobetxamendua, 640 zenbakiko OPMan, La Dehesa, Serenautsi, Casacona eta Chaparral dermioletan, zeinen titularra Done Bikendi Harana herria baita; Fagus Sylvatica eta Quercus zuhaitzen 57 ha-ko argi selektiboaren bidez, 1.887,525 metro kubiko azalarekin neurtuta, Arabako Lurralde Historikoko mendien araubidea arautzen duen martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 35. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorritik.

c) 6. Aprobetxamendu epea: 2026ko abenduaren 31ra arte.

d) Loteak: ez.

##### 3. Izapidetzea eta prozedura

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Adjudikazio irizpideak: prezioa, eskaintza ekonomikorik onena.

##### 4. Lizitazioa

28.312,87 euro (BEZa aparte).

##### 5. Bermeak

Baldintza orriaren arabera, adjudikazioaren ehuneko 5; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza araubide bereziko ehuneko 12ko konpentsazioa aparte.»

##### 6. Ordainketa

Ikus baldintza agiria.

**7. Kontratistaren berariazko betekizunak**

- a) Sailkapena: ez.
- b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala: agirian jasotzen da.

**8. Eskaintzak aurkeztea**

- a) Azken eguna: hamabost egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik. Azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.
- b) Aurkezteko lekua: Haraneko Udalaren bulegoa (Alda), 09:00etatik 14:00etara.
- c) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazita daudenak, eta baldintzen agirian jasotako eskaintza ereduak.
- d) Eskaintzak irekitzea: eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo zazpigarren egun baliodunetan. Helbidea: Haraneko Udala (Alda).

Done Bikendi Harana, 2025eko apirilaren 14a

*Errejidore-lehendakaria*

*JOSU SAN VICENTE SAENZ DE UGARTE*